

Eskerrik asko, #ALTSASU

Ez dakigu nola azaldu Altsasuko ferietako iskanbilarengatik auziperatu dituzten 11 lagunen familiak bizi dugun egoera, baina hitz egin nahi dugu herri honek ongi argi adierazi dizkigun emozioez.

Hasiera-hasieratik babestuak sentitu gara, maitatuak, zainduak. Mila-mila esker, Altsasu. Zuen txera adierazteagatik; inoiz ez bezala —eta, batzuek, gainera, lehendabiziko aldiz— zuen haserrea eta elkertasuna adierazteko kalera aterazteagatik; preso dauden gure semeengatik arduratu eta interesa agertzeagatik; etengabe animatzeagatik; kalean geratzeagatik, osasun zentroan, poteoan, azokan. Ideologia ezberdineko gizon eta emakumeek bizitzen ari garen ankerkeria honen aurrean ulertzen gaituzela eta gurekin zaudetela esan diguzue.

Ez dakigu nola eskertu herritarrengandik jasotzen ari garen energia. Horrek indarra ematen digu gure seme-alabak askatzeko ahaleginean jarraitzeko eta auzia dagokion auzitegian epaitua izan dadin lortzeko —ez baitzen inoiz auzitegi horretatik atera behar—.

Altsasuko Udalari bere laguntza zintzoki eskertu nahi diogu, eta bereziki aipatu nahi ditugu PSNko bi zinegotziak, bere alderdiaren jarreraren gaineratik, herri honen sentipenarekin bat egin dutelako. Eskerrak eman nahi dizkiogu ere Nafarroako Legebiltzarrari —eta oro har Nafarroako jendarteari— talde parlamentarioak informatzeko aukera emateagatik gure hurbilekoen egoera azaldu ahal izateko.

Eskerrak eman nahi dizkiogu ere Altsasuko apaizei eta Iruñeko artzapezpikuari harrera egin eta entzuteagatik. Norbaitek entzun egiten duenean, errazagoa da ulertzea eta modu egokian jokatzea.

Ezin dugu ahaztu gure esker ona adieraztea baldintzarik gabe bere laguntza ematen ari zaigun psikologoari. Egoera bidegabe hau arrastoa uzten ari da bai familiengan eta bai gazteengan eta bera hor dugula jakiteak lasaitasuna ematen digu.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Sakanako herritarrei, Nafarroakoei, Euskal Herrikoei, Vallecaskoei, Kataluniakoei eta Espainiako Estatuko hainbat herriri. Bakoitzak, bere erara, adierazi digu gurekin dagoela. Gogoan ditugu ere bai India, London, Praga edo Japoniarik injustizien kontra protesta egin dutenei.

Eta, zer esanik ez, Altsasuko gaztediari. Inurrien gisan, bere denborako ordu pila bat erabiltzen ari dira gai honetan, jakin badakitelako edozein izan zitekeela auziperatua. Jakin badakite nahita eraikitako kontakizun faltsua ezin dela zigorrik gabe geratu. Jakin badakite antolatuta zentzugabekeriari aurre egin diezaiokegula.

Eskerrak eman nahi dizkiogu jende askori, ezagun zein ezezagunak. Oraindik behar zaituztegu auzi honetara arrazoia, justizia eta oreka itzul daitezten. Bitartean, jarraituko dugu munduari erakusten injustizi handi bat bizitzen ari garela.

ESKERRIK ASKO,
GUZTIEI, BIHOTZ BIHOTZEZ



Gracias, #ALTSASU

No sabemos cómo explicar la situación que nos ha tocado vivir a las 11 familias de las personas imputadas por la trifulca de las ferias de Altsasu.

Queremos hablar de las emociones que este pueblo sabiamente nos ha sido capaz de expresar; desde el primer momento nos hemos sentido arropadas, queridos, cuidadas, mila-mila esker, Altsasu. Por vuestras muestras de cariño, por haber salido a la calle para mostrar vuestro enfado y solidaridad como nunca, incluso para muchas y muchos por primera vez.

Por vuestras muestras de apoyo e interés por la situación de nuestros hijos presos, por vuestras continuas muestras de ánimo, por pararnos en la calle, en el ambulatorio, durante el poteo, en el mercadillo... mujeres y hombres que desde ideologías diferentes nos decís que nos acompañáis y nos entendéis ante esta barbarie que nos está tocando vivir.

No sabemos cómo agradeceremos la energía que desde el pueblo estamos recibiendo. Esto nos da fuerzas para seguir en el empeño de que nuestros hijos sean liberados y que éste caso vuelva al juzgado natural que le corresponde, del que nunca debía haber salido.

Seguimos en nuestro agradecimiento sincero al Ayuntamiento de Altsasu por su apoyo, haciendo una mención a los dos concejales del PSN ya que han entendido el sentir de este pueblo a pesar del posicionamiento de su partido. También al Parlamento de Navarra, y a la ciudadanía navarra en su conjunto, por habernos ofrecido la posibilidad de informar a los grupos parlamentarios sobre la realidad de nuestros seres queridos.

También damos las gracias al cura y párroco de Altsasu y al obispado, por habernos recibido y escuchado. Cuando alguien escucha, es más fácil el entendimiento, y se actúa en consecuencia.

No podemos olvidar en nuestro agradecimiento a la psicóloga que nos ésta ofreciendo su apoyo incondicional, porque está situación tan ingrata va dejando huella tanto en las familias como en las y los chavales, y saber que podemos acudir a ella, nos aporta tranquilidad.

Agradecemos a la ciudadanía de Sakana, de Navarra y de toda Euskal Herria, a Vallecas, a Cataluña, a pueblos del Estado español que, cada cual a su manera, nos han dicho que están con nosotras y nosotros. A jóvenes que desde India, Londres, Japón o Praga, nos dicen que en el mundo también se entiende que hay que protestar por las injusticias.

Y, cómo no, a esta juventud de Altsasu que día a día, como hormiguitas, empeñan un montón de horas de su tiempo personal en esta causa, porque sienten que cualquiera podía haberse visto imputado. Que, desde la empatía, entienden que lo que como pueblo estamos viviendo no puede quedar en la impunidad de un falso relato construido intencionadamente. Porque nos muestran que organizándose podemos hacer frente a la sinrazón.

Agradecemos a muchísima gente anónima y con nombre. Y recordad, os seguimos necesitando porque hasta que la razón, la justicia, y la proporcionalidad no vuelvan a este caso, seguiremos mostrando al mundo que estamos sufriendo una gran injusticia.

ESKERRIK ASKO,
GUZTIEI, BIHOTZ BIHOTZEZ